

PRENTSAURREKOA

**BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEAK ANTOLATUTAKO BIKTIMEKIKO
ELKARTASUNERAKO VII. EKITALDIAREN AURKEZPENA**

Gogoan ditugu

Azken urteetan egindakoaren haritik, Euskal Herriko Bakearen aldeko Koordinakunde honek **Biktimekiko Elkartasunerako VII. Ekitaldia** antolatu du. Aurten, datorren igandean, abenduak 17, izango da Bilbon. Biktimen aldeko gizartearen konpromisoan oinarritutako etorkizunean jartzen dugun itxaropena da ekitaldi honetan transmititu nahi dugun mezua. Hauxe da goiburua: *Gogoan ditugu*.

Gaur egungo abagunean, Bakearen aldeko Koordinakundearen ustez ezinbestekoa da indarkeria adierazpen guztien erabilera salatzea, eta gizarte hau 40 urte ingurutan astindu duen gaitz honi bukaera emateko konpromiso eta erantzukizuna bere egiteko exijitzen die indarkeria babesten dutenei. Gizarte osoak du behin-betiko bakea lortzeko itxaropena eta ez gaude prest ez itxaropen horri eusteari uko egiteko ezta Euskal Herriarentzako bake, zuzentasun eta askatasuna etengabe eskatzeari uzteko ere. Itxaropen hori sustatu nahi dugu, heriotza eta suntsipenez jantzitako eszenatokira bueltatzea ezinezkoa izan dadin.

Gizartearen gehiengoak behin eta berriro adierazi du indarkeriaren erabileraren aurka dagoela, baina oraindik indarkeriaren bukaera bultzatzeko protagonismoa bere egin behar du eta bukaera horretan nahi dugun etorkizunaren oinarriak sendotzeko eskatu, hala nola: indarkeriari zilegitasun oro kendu eta gure historiaren memoria kritikoa sortu, gertatu dena, ekarri duen samina eta eragin dituen biktimak beti gogoan izateko.

Gogoan ditugu

Gertatutakoaz jabetzeak eta gertatutako hori geure egiteak Euskal Herrian 40 urtetan jasandako izuaren ondorio larrienak gainean daramatzaten biktima guztiekiko konpromiso sendo eta etenezinezkoa ezartzea dakar nahitaez. Gizartearen biktimganganako konpromisoari dagokionez, lehenengo eta behin, beraiei ukatu zaiena aitortu beharra dago eta, autorpen hori eginda, biktimok geure memorian gorde behar ditugu. Eta memoria hori oroitzapen eta elkartasunezko ekitaldi publiko hauetan konpartitzen dugu.

Biktimak geure memorian gordetzeko konpromiso honekin hauxe esan nahi dugu denon aurrean: beren sufrimendu eta samina sentitu dugula eta sentitzen dugula; herrikide guztien aurrean adierazten dugula sufrimendu hori geure izenean egin izana gaitzesten dugula; biktimak ez ahazteko eta beren oroitzapenari terrorismoaren bukaeraren ostean eusteko konpromisoa hartzen dugula, hildako biktimen zoritzarreko ausentziak iraungo duen bezala. Beraien gomuta, beraiek etengabe geure gogoan izatea da demokraziaren eta gizakien eskubideen erespetu sakonaren oinarri eta balioetan sendo irauten lagunduko digun bizgarria.

Samin izpi bakoitzaren gomuta gure memoria kolektiboaren zati bihurtzen da, beraiek jasandako erasoak gizarte osoaren aurkako erasoak izan zelako. Intolerantziarik gordinenak bizikidetasunari, errespetuari, aniztasunaren, desberdinen onarpenari, demokraziari,...

Apdo. 10.152 - 48080 Bilbao – Tfno 94 4163929 - Fax 94 4153285

Apdo. 176 – 31080 Pamplona – Tfno. Fax: 948 223135

Apdo. 2.063 – 01080 Vitoria Gasteiz- Tfno. Fax: 945 226838

Apdo. 5.005 – 20080 Donostia – Tfno. Fax: 943 210906

e-mail: gesto@gesto.org <http://www.gesto.org>

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

egindako erasoaren biktima zuzenak dira. Eta honen haritik, eskatzen dugun oroitzapenak indarkeriari zilegitasuna kentzearen etengabeko eskakizun eta bizikidetzaren baketsuaren aldeko apustu sendo bihurtu behar du gurea bezalako gizarte anitzean.

Ekitaldi honetan beste urrats bat eman nahi dugu, ez senideren baten galerak edo mutilazioak eragindako samina arintzeko –dagoeneko ezer gutxi egin dezakegu-, gizarte bezala biktimei hainbeste urtetako ahazte, axolagabekeria edo errudunesteagatik eta merezi duten elkartasun eta hurkotasuna ez erakusteagatik eragin diegun eta eragiten diegun mina kentzeko baizik. Azken batean, nahiz eta biktimek bala geratu, ETAk denoi egiten zigula tiro ez aitortzeagatik.

Oroitzapenak gizarte honen duintasuna berreskuratzen, izua ekarri zuten argumentuak deuseztatzen eta biktimei lehen atzea eman zien gizartean konfiantza berreskuratzeke dei egiten lagun diezaguke.

Memoria bizia

Gure ustez, jendaurrean hartu behar dugu konpromiso sendo bat: biktimak gogoan izan behar ditugula. Gure herri eta hirietan biktimak gogoratu behar ditugu. Ekitaldi honetan aukera eskaintzen diogu gizaritari, memoria horri bizirik eusteko konpromisoa har dezan.

Joan dan hilean Bakearen aldeko Koordinakundeak antolatu zituen Biktimekiko Elkartasun Jardunaldietan, hauxe zioen ETAk hildako baten aitak:

“Norbaitek gogoan baditu, gure artean izango dira”.

Zalantzarik gabe, biktimak gogoan izatea, biktimak ez ahaztea da beren ausentzia gehien sufritzen dutenen itzaropena eta guk gure errukia erakuts diezaiekegu. Beren oroitzapena, gainera, gauzatu izan den izuari zilegitasuna kentzeko lehenengo arrazoia da. Hainbeste heriotza eta hainbeste samin ezin da biktimen etxe barruan gordeta geratu; etenbako dei izan behar dute, inolako zalantzarik gabe baieztatu dezagun izu hark ez zuela eta ez duela inolako justifikaziorik izan, ez zegoela arrazoi bakar bat ere hildako eta mutilatutako pertsonen izuak ezarri ziren zigor krudela jasan zezaten.

Dei egiten diegu herritar guztiei, abenduaren 17an, igandez, 13'00ean Biktimekiko Elkartasunerako VII. Ekitaldian parte har dezaten. Bilboko Doña Casilda Parkean bilduko gara (Gregorio de la Revilla kalearen parean), beti **GEURE GOGOAN IZANGO** ditugunean geure elkartasuna adierazteko.

RUEDA DE PRENSA

PRESENTACIÓN DEL VII ACTO DE SOLIDARIDAD CON VÍCTIMAS ORGANIZADO POR GESTO POR LA PAZ

En nuestra memoria

Como venimos haciendo estos últimos años, desde la Coordinadora Gesto por la Paz de Euskal Herria organizamos el VII Acto de Solidaridad con las Víctimas. En esta ocasión, será el próximo domingo, 17 de diciembre en Bilbao. El mensaje que queremos transmitir en este acto es la esperanza en el futuro basada en el compromiso de la sociedad hacia las víctimas. Esta es la razón del lema del acto: *En nuestra memoria*.

En la coyuntura actual, Gesto por la Paz considera imprescindible denunciar el uso de todas las manifestaciones de violencia y exige a quienes ejercen y apoyan la violencia que asuman el compromiso y la responsabilidad de terminar con esta lacra que ha golpeado a esta sociedad durante casi 40 años. Toda la sociedad tiene la esperanza de que sea posible alcanzar una paz definitiva y, ni vamos a renunciar a mantener viva esta esperanza, ni vamos a desfallecer en nuestra continua exigencia de paz, justicia y libertad para Euskal Herria. Alimentaremos esta esperanza para lograr que la vuelta al escenario de muerte y destrucción resulte imposible.

La sociedad, que durante años se ha manifestado mayoritariamente en contra del uso de la violencia, aún tiene que asumir el protagonismo de impulsar su final y de exigir que en este final se refuercen las bases del futuro que deseamos y que son la deslegitimación absoluta de la violencia y la creación de una memoria crítica de nuestra historia que tenga muy presente lo que ha ocurrido, el dolor causado y las víctimas ocasionadas.

En nuestra memoria

Ser conscientes y asumir lo ocurrido supone inevitablemente establecer un firme e inquebrantable compromiso con las víctimas en su conjunto, con las consecuencias más dramáticas de 40 años de terror en Euskal Herria. El compromiso de la sociedad hacia las víctimas debe ser, en primer lugar, reconocer el déficit existente hacia ellas, y, a partir de ese reconocimiento, incorporarlas en nuestra memoria. Una memoria que compartimos mediante estos actos públicos de recuerdo y de solidaridad.

Con este compromiso de incorporar a las víctimas a nuestra memoria manifestamos públicamente que hemos sentido y sentimos su sufrimiento y su dolor; que rechazamos públicamente que ese sufrimiento se hubiera ejercido en nuestro nombre y, consecuentemente, que asumimos la tarea de deslegitimar el uso de la violencia; que nos comprometemos a no olvidarlas y a que su memoria perdure más allá del tan deseado final del terrorismo, como desgraciadamente permanecerá la ausencia de las víctimas asesinadas. Su recuerdo, su permanente presencia en nuestra memoria es el revulsivo que nos mantendrá firmes en los principios y valores de la democracia y del profundo respeto a los derechos de los seres humanos.

El recuerdo de cada gramo de dolor se convierte en parte de nuestra memoria colectiva porque el ataque que ellas sufrieron iba dirigido a toda la sociedad. Ellas son las víctimas directas del ataque de la intolerancia máxima a la convivencia, al respeto, a la aceptación del

**COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA**

pluralismo, de lo diferente, a la democracia.... Y en ese sentido, la memoria que reclamamos se debe convertir en una exigencia permanente de deslegitimación de la violencia y en apuesta rotunda por la convivencia pacífica en una sociedad plural como la nuestra.

Este acto quiere ser un paso más, no para tratar de aliviar el dolor por la pérdida de un ser querido o su mutilación –ya poco podemos hacer-, sino para reparar el dolor que como sociedad hemos causado y causamos a las víctimas por tantos años de olvido, indiferencia o culpabilización y por no haberles mostrado la solidaridad y cercanía que se les debía. En definitiva, por no haber querido reconocer que ETA nos disparaba a todos aunque las víctimas pararan la bala.

Esta memoria podrá ayudarnos a recuperar la dignidad de esta sociedad, a desmontar los argumentos que permitieron el horror y a invitar a las víctimas a que recuperen su confianza en la sociedad que antes les dio la espalda.

Memoria viva

Entendemos que es necesario afirmar públicamente el compromiso de que las víctimas estén en nuestra memoria. Es importante que haya en nuestros pueblos y ciudades recuerdos a las víctimas. En este acto ofrecemos la oportunidad a la sociedad de asumir el compromiso de mantener esta memoria viva.

En las Jornadas de Solidaridad con las Víctimas que organizó Gesto por la Paz el mes pasado, el padre de una persona asesinada por ETA dijo:

“Mientras alguien los recuerde, estarán con nosotros”.

Indudablemente, su recuerdo, su no olvido es la esperanza de quienes más sufren su ausencia y en nuestras manos está manifestarles nuestra compasión. Pero su recuerdo es también la primera razón para deslegitimar el horror ejercido. Tantas muertes y tanto dolor no deben quedar encerrados en la privacidad de los hogares afectados, sino que deben ser la llama permanente que haga presente nuestra profunda convicción de que aquel horror no tuvo, ni ha tenido ninguna justificación y que no existía ninguna razón para que ninguna de las personas asesinadas y mutiladas recibiera el castigo inhumano que el terror les impuso.

Invitamos a toda la ciudadanía en general, a que el domingo, 17 de diciembre, a las 13'00 h. participen en el VII Acto de Solidaridad con las Víctimas que celebraremos en el Parque de Doña Casilda de Bilbao (frente a la calle Gregorio de la Revilla) que será un gesto de solidaridad con quienes siempre tendremos *EN NUESTRA MEMORIA*.

**COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA**

14 de diciembre de 2006



Apdo. 10.152 - 48080 Bilbao – Tfno 94 4163929 - Fax 94 4153285

Apdo. 176 – 31080 Pamplona – Tfno. Fax: 948 223135

Apdo. 2.063 – 01080 Vitoria Gasteiz- Tfno. Fax: 945 226838

Apdo. 5.005 – 20080 Donostia – Tfno. Fax: 943 210906

e-mail: gesto@gesto.org <http://www.gesto.org>